

IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA, EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETARAKO

DONOSTIAKO UDALA

AURKIBIDEA

LEHENENGO ZATIA: MEMORIA.....	5
1.- SARRERA.....	5
2.- GLOSARIOA, ADMINISTRAZIO-IRREGULARTASUNAREN, IRUZURRAREN, USTELKERIAREN, INTERES-GATAZKEN, ESTATU-LAGUNTZEN ETA FINANTZAKETA BIKOITZAREN KONTZEPTUENA.....	7
2.1.- ADMINISTRAZIO-IRREGULARTASUNAK.....	7
2.2.- IRUZURRA.....	7
2.3.- USTELKERIA.....	8
2.4.- INTERES-GATAZKA.....	9
2.6.- IZENA, DOKUMENTU HONEN ONDORIOETARAKO.....	11
3.- ARAUDI APLIKAGARRIA.....	12
3.1.- Europar Batasuneko araudia.....	12
3.2.- Estatuko araudia.....	12
3.3.- Euskal Autonomia Erkidegoko araudia.....	13
BIGARREN ZATIA: DONOSTIAKO UDALAREN INTEGRITATE ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA.....	14
1.- INTEGRITATE-PLANAREN ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN ELEMENTU OROKORRAK.....	14
1.1.- Planaren xedea.....	14
1.2.- Planaren izaera eta helburua.....	14
1.3.- Integritate-planaren printzipioak eta iruzurraren aurkako neurriak.....	14
1.4.- Aplikazio eremu objektiboa.....	15
1.5.- Aplikazio eremu subjektiboa.....	15
1.6.- Plana kudeatzeko eta garatzeko antolaketa-egitura.....	17
1.6.1.- Planaren Zuzendaritza Politikoa.....	17
1.6.2.- Integritatearen eta iruzurraren aurkako neurrien plana kudeatzeko arduradun teknikoa.....	17
1.6.3.- Proiektuaren arduradunak.....	17
2.- ADMINISTRAZIO-IRREGULARTASUNAK, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES-GATAZKAK PREBENITZEKO, DETEKTATZEKO, ZUZENTZEKO ETA JAZARTZEKO NEURRIAK.....	18
2.1.- PREBENTZIO-NEURRIAK.....	18



<u>2.2.1.- Adierazpen politiko bat onestea, erakundeen integritatearen aldeko konpromiso maila gorenari eta ustelkeriaren aurrean zero tolerantziari buruzkoa.....</u>	<u>18</u>
<u>2.2.2.- Jokabide-kodeak eta kudeaketa ona onartzeko edo indartzeko estrategia diseinatzea.....</u>	<u>18</u>
<u>2.2.3.- Plan honekin batera, berehala onartzea Europako funtsak kudeatzeko Integritate Protokoloa.....</u>	<u>20</u>
<u>2.2.4.- Berme komuneko organo bat sortzea, Integritate Batzordea izeneko, Integritate Protokoloa eta, hala badagokio, erakundeak onartutako jokabide-kodeak kudeatu, aplikatu eta interpretatzeko.....</u>	<u>21</u>
<u>2.2.5.- Integritatearen eta etika publikoaren arloko estrategia bat eta prestakuntza-ekintza sorta bat diseinatzea.....</u>	<u>21</u>
<u>2.2.6.- Arriskuak ebaluatzeko kudeaketa-eredu bat definitzea irregulartasunen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken prebentzioaren eremuan.....</u>	<u>23</u>
<u>2.3.- DETEKZIO-NEURRIAK.....</u>	<u>26</u>
<u>2.3.1.- Barneko informazio-sistemak antolatzea.....</u>	<u>27</u>
<u>Sistema horrek irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria edo interes-gatazka detektatzeko funtzioa izango du.....</u>	<u>27</u>
<u>2.3.1.1.- Artikulazio-printzipioak.....</u>	<u>27</u>
<u>2.3.1.2.- Salaketaren edukia.....</u>	<u>27</u>
<u>2.3.1.3.- Funtzionamendua.....</u>	<u>28</u>
<u>2.3.1.4.- Kanpo salaketa-kanalak.....</u>	<u>29</u>
<u>2.3.2.- Bandera gorrien zerrenda bat aurreikustea.....</u>	<u>29</u>
<u>2.3.3.- Jardueren eta, hala badagokio, interesen, ondasunen edo ondareen adierazpenak.....</u>	<u>30</u>
<u>2.3.4.- Datuak kudeatzeko eta trazabilitaterako tresnak sartzea.....</u>	<u>31</u>
<u>2.4.- NEURRI ZUZENTZAILAK.....</u>	<u>31</u>
<u>2.4.1.- Sarrera.....</u>	<u>31</u>
<u>2.4.2.- Iruzur posible bat detektatuz gero egin beharreko jarduketak.....</u>	<u>32</u>
<u>2.4.3.- Iruzurraren, ustelkeriaren edo interes-gatazken eragina puntuala edo sistemikoa den ebaluatzea.....</u>	<u>32</u>
<u>2.4.4.- Proiektuak edo proiektuen zati bat erretiratzea.....</u>	<u>33</u>
<u>2.4.5.- Beste neurri zuzentzaile osagarri batzuk hartzea:.....</u>	<u>33</u>
<u>2.5.- JAZARPEN NEURRIAK.....</u>	<u>34</u>
<u>2.5.1.- Sarrera.....</u>	<u>34</u>
<u>2.5.2.- Informazio erreserbatua eta diziplina- edo zehapen-prozedurak abian jartzea.....</u>	<u>34</u>

<u>2.5.3.- Gertakariak eta hartutako neurriak agintari eskudunei jakinaraztea...</u>	<u>35</u>
<u>2.5.4.- Ustezko iruzur-kasuak estatuko edo Europar Batasuneko agintari publikoen aurrean salatzea, baita fiskaltzaren edo auzitegien aurrean ere....</u>	<u>35</u>
<u>2.5.5.- Kasuaren jarraipena egitea eta funtsak berreskuratzea.....</u>	<u>36</u>
<u>3. FINANTZAKETA BIKOITZA PREBENITZEKO, DETEKTATZEKO, ZUZENTZEKO ETA JAZARTZEKO NEURRI ESPEZIFIKOAK ETA ESTATUKO LAGUNTZEN ARAUBIDEAREKIKO BATERAGARRITASUNA.....</u>	<u>36</u>
<u>4. PUBLIZITATEA, ONDORIOAK ETA JARRAIPENA.....</u>	<u>39</u>
<u>4.1. Publizitatea.....</u>	<u>39</u>
<u>4.2. Ondorioak.....</u>	<u>39</u>
<u>4.3. Jarraipena.....</u>	<u>40</u>

LEHENENGO ZATIA: MEMORIA

1.- SARRERA

I.-

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak (EBFT) 310. eta 317. artikuluetan aitortzen du finantza-kudeaketa onaren printzipioa Batasunaren aurrekontua gauzatzeko orduan. Estatu kideak behartuta daude iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, atzemateko eta zuzentzeko beharrezkoak diren neurriak hartzera eta lankidetzan jardutera, betiere EBko aurrekontu horietatik datozen baliabideak kudeatzen badituzte –EBFTren 325. artikuluan zehazten den bezala–.

EBFTn jasotako aurreikuspen horiek unean uneko oihartzuna izan dute, eta, iruzurraren Aurkako Neurrien Plan honetan aipatuko den moduan, EBren "Zuzenbidetik eratorritako" kategorian txertatzen diren arau-tresnen bidez (zuzentarauak, erregelamenduak, erabakiak) eta *soft law* tresnen bidez (komunikazioak, gomendioak, etab.) garatu dira.

Europar Batasunak, heinean-heinean, zuzenean, zeharka edo modu partekatuan Europar Batasuneko aurrekontu-partidak gauzatzen dituzten erakunde-eragileek integritatearen esparruan egiaztatu beharreko eskakizun-estandarrek; lehenik, Europako funtsen arloko xedapen erkideei buruzko 1303/2013 Erregelamenduaren bidez; geroago, iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017ko Zuzentarauaren bidez eta, azkenik, 2018ko Finantza Erregelamenduaren bidez.

2020ko uztailetik aurrera, Europako Kontseiluak onartutako *Next Generation EB* programa abian jartzeak neurri antizikliko batzuk abiaraztea ekarri zuen, COVID-19aren agerpenaren ondoriozko krisi sanitario/humanitario, ekonomiko eta sozial hirukoitzaren ondorioak arintzeko.

Programa hori garatzeko, garrantzi bereziko tresna juridiko batzuk onartu behar izan ziren EB mailan, besteak beste, 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) ezartzen duena. Erregelamendu horrek betebeharrak hau ezartzen zuen: finantza-pizgarrietarako neurri horiei heldu nahi zieten estatu kideek (finantza-ekarpenak eta maileguak) Suspertze eta Erresilientzia Plan bat bete behar zuten, eta bertan jaso behar ziren herrialdea suspertzea eta indartzea helburu zuten erreformak eta inbertsio-proiektuak, etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Europako Kontuen Auzitegiak bere garaian 6/2020 Irizpenean egindako oharren ondorioz, SEMaren Erregelamenduak aipamen ugari egin zituen, halaber, Europako aparteko funts horiek kudeatzen dituzten estatu kideek iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken aurka borrokatzeko behar diren neurriak hartu behar zituztela adieraziz. Prebentzio-, detekzio- eta zuzenketa-politika bat gauzatu nahi da, finantza-baliabide horien erabileran horrelako agerpen patologikoak agertzea saihesteko edo agerpen horiek arintzeko. EBko Kontuen Auzitegiak ohartarazi zuenez, oso denbora laburrean gauzatu beharreko finantza-baliabideen bolumena kontuan hartuta, administrazio-irregulartasunen, iruzurraren eta ustelkeria-kasuak eta interes-gatazkak agertzeko arriskuak oso handiak ziren; beraz, aparteko funts horiek aldeztu aurretik

diseinatutako helmuga eta ondorio ekonomiko eta sozialak izateko beharrezkoak ziren kudeaketa-neurriak hartzea alde batera utzi gabe, alderdi horretan funtsezkoa zen suspertze- eta erresilientzia-plan horiei lotutako programak gauzatzeko erakunde publiko eskudunetan integritate-mekanismoak indartzea.

II.-

Espainiak 2021eko apirilaren 30ean aurkeztu zuen Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (SEEP). Bertan, SEMaren Erregelamenduan ezarritako estandarren arabera, lau ardatzetan (SEMaren sei zutabeekin zuzeneko edo zeharkako loturak dituzte), 10 palanka-politiketan eta erreformak eta inbertsio-proiektuak barne hartzen dituzten 30 osagai edo ekintza-lerrotan egituratzen diren erreformak eta inbertsio-proiektuak ageri ziren xehatuta. Plan horrek Europako Batzordearen onespena jaso zuen, eta bere garaian finantza-ekarpenei lotutako lehen funtsak igortzen hasi zen (guztizkoaren % 13). Ondoren, SEEPean txertatutako erreformetan eta inbertsio-proiektuetan ezarritako mugarriak eta helburuak bete ahala igorriko dira gainerako funtsak.

SEMaren Erregelamenduan jasotako eskakizunaren zuzeneko emaitza izan zen plan hori. Era berean, barne-zuzenbidean onartu zen 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko. Errege lege-dekretu horren edukiaren zati bat oinarritzkoa da, eta 3. artikuluan kudeaketa-printzipio batzuk jasotzen dira plan hori gauzatzeari dagokionez, horien artean –Europar Batasuneko zuzenbidearen eskakizun gisa–, interes-gatazkak, iruzurra eta irregulartasunak eraginkortasunez prebenitzeko mekanismoak indartzea.

Betebehar orokor hori Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduan zehazten da. Agindu horretan, halaber, jasotzen da irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismo horiek SEEPetik datozen Europako funtsak kudeatzeko sistemaren parte direla, zeharkako irizpide edo printzipio gisa, beste hainbatekin batera. 6. artikuluan xedatzen da SEMetik datozen Europako ezohiko funtsak erabakitzen edo betearazten dituzten erakunde guztiek Integritaterako eta Iruzuraren Aurkako Neurrien Plana onartu beharko dutela.

Agindu horrek baldintza edo eskakizun batzuk ezartzen ditu, eta, nolana ere, Integritaterako eta Iruzuraren Aurkako Neurrien Plan batean jasota geratu behar dira horiek. Era berean, adierazten da plan hori erakunde bakoitzaren ezaugarri espezifikoetara egokitu behar dela, hau da, bere eskumen- eta jarduera-esparrura, eta hori da, hain zuzen ere, plan honetan egin dena.

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoari buruzko urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua indarrean jartzean, plan hori aplikatu behar zaien erakundeek SEEParekin finantzatzutako kontratazio-prozesuetan eta dirulaguntzetan interes-gatazka kontrolatzeko ezartzen duen prozedura espezifikoa bete beharko dute.

Neurriak iruzurraren aurkako zikloaren inguruan antolatu behar badira ere, Integritaterako eta Iruzuraren Aurkako Neurrien Plana onartzen duen erakundeak

konfigurazio-tarte zabala du neurri batzuk ala besteak bultzatzeko, integritate-mekanismoen edo egoeraren inguruan egindako diagnostikoaren arabera.

2.- GLOSARIOA, ADMINISTRAZIO-IRREGULARTASUNAREN, IRUZURRAREN, USTELKERIAREN, INTERES-GATAZKEN, ESTATU-LAGUNTZEN ETA FINANTZAKETA BIKOITZAREN KONTZEPTUENA

2.1.- ADMINISTRAZIO-IRREGULARTASUNAK

Administrazio-irregulartasunaren definizioa 1995eko abenduaren 18ko 2988/95 Erregelamenduko (EE, EURATOM) 1.2 artikuluan dago jasota, Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteari buruzkoan: *"Irregulartasuna izango da eragile ekonomiko baten egite edo ez-egite bati dagokion Erkidegoko zuzenbideko xedapen baten urraketa oro, baldin eta Erkidegoen aurrekontu orokorrari (Europar Batasuna) edo haiek administratutako aurrekontuei (edo agintari nazionalak –tokikoek– modu partekatuan kudeatutakoei) kalte egin badiezaieke, dela Erkidegoen kontura zuzenean jasotako baliabide propioetatik datozen diru-sarrerak murriztearen edo ezabatzearen bidez, dela bidegabeko gastu baten bidez".*

Beraz, EBren erregulazioaren testuinguruan, irregulartasuna kontzeptu zabala da, eta barnean hartzen ditu Batasunaren aurrekontuari kalte egiten dioten egitez edo ez-egitezko arau-hausteak. Beraz, irregulartasun bat egoteak ez du beti iruzurra eragiten; izan ere, nahita egitea funtsezko elementua da iruzurrean, baina irregulartasuna egoteko, ez da beharrezkoa hori nahita egitea.

Ildo horretan, testuinguru honetan, intentzionalitatea egotea ala ez, hori da iruzurraren eta irregulartasunaren arteko aldea zehazteko kontuan hartzen dena.

Nolanahi ere, irregulartasuna iruzurrezkoa ez izatea eragotzi gabe, kudeaketa publikoa eraginkortasunez eta integritatez gauzatzeak zeharkako eragina izan dezake irregulartasun orokorren prebentzioan eta detekzioan (identifikatu edo kontrolatu gabeko interes-gatazken ondoriozkoak, plangintzarik ezaren edo xahutzearen ondoriozkoak), irregulartasun horiek iruzurra baino kategoria zabalagozat hartuta.

2.2.- IRUZURRA

Iruzurraren definizioa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko uztailaren 5eko 2017/1371 (EB) Zuzentarauan dago jasota, Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurka Zigor Zuzenbidearen bidez borrokatzeari buruzkoan. "1. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte bermatzeko Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurra, nahita egiten denean, arau-hauste penala dela.

2. Zuzentarau honen ondorioetarako, Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurtzat joko dira honako hauek:

a) kontratu publikoekin zerikusirik ez duten gastuen arloan, honako hauekin lotutako edozein egite edo ez-egite:

- b) aitorpen edo dokumentu faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, baldin eta horren ondorioa bada Batasunaren aurrekontuko funtsak edo aktiboak edo Batasunak –edo Batasunaren izenean– administratutako aurrekontuak bidegabe eralgitzea edo oinarririk gabe atxikitzea,
- c) ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea, edo
- d) funts edo aktibo horiek behar ez bezala erabiltzea, hasieran eman ziren helburuetarako ez beste batzuetarako;
- e) Kontratu publikoekin zerikusia duten gastuen arloan, gutxienez egilearentzat edo beste pertsona batentzat zilegi ez den irabazia lortzeko asmoz egiten direnean, Batasunaren finantza-interesentzat galera eraginez, honako hauekin zerikusia duen edozein ekintza edo ez-egite:
- f) aitorpen edo dokumentu faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, baldin eta horren ondorioa bada Batasunaren aurrekontuko funtsak edo aktiboak edo Batasunak –edo Batasunaren izenean– administratutako aurrekontuak bidegabe eralgitzea edo oinarririk gabe atxikitzea,
- g) ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea, edo
- h) funts edo aktibo horiek behar ez bezala erabiltzea hasieran eman ziren helburuez bestelakoetarako eta Batasunaren finantza-interesei kalte egiteko;
- (Nolanahi ere, iruzurraren kontzeptuaren irismen zehatza zehazteko, 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 3. artikulua eduki osoa hartu behar da kontuan, eta horren zati bat baino ez baita erreproduzitu).”

2.3.- USTELKERIA

Europako Batzordeak ustelkeriaren kontzeptu hau aplikatzen du: “Ustelkeriatzat jotzen da lanpostu publiko batek onura pribatuak lortzeko egiten duen botere-abusua. Ordainketa ustelek beste iruzur mota asko errazten dituzte, hala nola fakturazio faltsua, gastu mamuak edo kontratu-baldintzak ez betetzea. Modurik ohikoena ordainketa ustelak edo antzeko onurak dira: hartzaile batek (ustelkeria pasiboa) emailen baten eroskeria (ustelkeria aktiboa) onartzen du mesede baten truke” (Iturria: Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen Europako Batzordea). Estatu kideentzako eta programen ardura duten agintarientzako orientabideak. Iruzur-arriskuaren ebaluazioa eta iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionalak, 2014).

2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 4.2 artikulua **ustelkeria aktiboaren eta ustelkeria pasiboaren** kontzeptuaren definizioa jasotzen du:

“2. Estatu kideek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte bermatzeko ustelkeria pasiboa eta aktiboa, nahita egiten direnean, arau-hauste penalak direla.

a) Zuzentarau honen ondorioetarako, ustelkeria pasibotzat joko da funtzionario baten ekintza, zuzenean edo bitartekari baten bidez, berarentzat edo hirugarrenentzat edozein motatako abantailak eskatu edo jasotzeko, edo abantaila baten promesa onartzeko, funtzionario horrek, bere eginbeharraren arabera edo bere eginkizunak betez, jardun dezan edo ez dezan jardun, hain zuzen ere Europar Batasunaren finantza-interesen kalterako.

b) Zuzentarau honen ondorioetarako, ustelkeria aktibotzat hartuko da funtzionario bati, berarentzat edo hirugarren batentzat, zuzenean edo bitartekari baten bidez edozein motatako abantaila proposatu, eskaini edo ematen dion pertsona ororen ekintza, funtzionario horrek, bere eginbeharrarekin bat etorritik edo bere eginkizunak betez, jardun ez dezan, hain zuzen ere Europar Batasunaren finantza-interesen kalterako”.

2.4.- INTERES-GATAZKA

2018ko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikulua zehazten du zer kasutan egongo den interes-gatazka, hain zuzen ere honela: *“1. paragrafoaren ondorioetarako, interes-gatazka egongo da finantza-agenteen eta 1. paragrafoan aipatzen diren gainerako pertsonen (Europako funtsak kudeatzen dituzten arduradun politikoak edo enplegatu publikoak) eginkizunak inpartzialtasunez eta objektiboki betetzea arriskuan dagoenean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik”.*

Nolanahi ere, interes-gatazken kontzeptuaren irismena Europar Batasuneko zuzenbidearen arabera zehazteko, Finantza Erregelamenduaren 61. artikulua osoa hartu behar da kontuan, bai eta Europako Batzordearen apirilaren 4ko 2021/C 121/01 Komunikazioa ere, *interes-gatazkako egoerak Finantza Erregelamenduaren arabera saihesteko eta kudeatzeko orientabideei buruzkoa.*

Era berean, benetan dauden, egon daitezkeen edo itxurazkoak diren interes-gatazken definizioak HFP 1030/2021 Aginduaren III. C eranskinean daude jasota.

Beraz, adierazi behar da interes-gatazka eta ustelkeria ez direla gauza bera. Ustelkeriak, oro har, gutxienez bi bazkideren arteko akordioa eskatzen du, eta ordainketaren bat, eroskeria edo nolabaiteko abantailaren bat; interes-gatazka, berriz, pertsona bat bere interes pribatuak bere betebeharraren profesionalen gainetik jar ditzakeen egoera batean dagoenean sortzen da. Pertsona horrek, bere posizio profesionalaz (erabakitze gaitasunaz eta eskura dituen baliabideez) abusatuz, onura pertsonal bat lortuko balu (zuzeneko edo zeharkako, ekonomiko edo beste mota batekoa, oraingoa edo etorkizuneko), ustelkeria-ekintza baten aurrean egongo ginateke.

Interes-gatazka eragiten duen egoerari erreparatuta, honako hauek bereiz daitezke:

- Itxurazko interes-gatazka: enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuak haren eginkizunak edo betebeharrak objektiboki betetzea arriskuan jar dezaketenean gertatzen da, baina, azkenean, ez dagoenean lotura identifikagarri eta indibidualik pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekin (edo,

azkenean, interes pribatuek ez dutenean eraginik jokabide, portaera edo harreman horretan).

- Interes-gatazka potentziala: enplegatu publiko edo onuradun batek interes-gatazka sor dezaketen interes pribatuak dituenen sortzen da, etorkizunean enplegatu publiko edo onuradun horrek erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar baditu.
- Benetako interes-gatazka: betebeharrak publikoaren eta enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuen arteko kontraesana eguneratzea dakar, halako moldean non azken horiek bidegabeki eragin baitezakete bere betebeharrak eta erantzukizunak betetzean.

2.5.- ESTATU-LAGUNTZAK ETA FINANTZAKETA BIKOITZA

Estatu-laguntzaren kontzeptua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107-109 artikuluetan eta hura garatzeko araudian jasota dago.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 8. kontuan hartuz, honako hau adierazten da: "Inbertsio pribatuak inbertsio publikoko programen bidez ere susta daitezke, bereziki finantza-tresnen, dirulaguntzen eta beste tresna batzuen bidez, betiere estatu-laguntzen arloko arauak errespetatzen badira".

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (España Puede) 4.6 apartatuak, kontrolari eta auditoretzari buruzkoak, berariaz jasotzen ditu estatu-laguntzak. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak datozen funtsak gauzatzeko kontrol-jarduketaren atal gisa, eta zehazten du finantzaketa bikoitzak, "dirulaguntza publikoen kasuan, Europar Batasunaren finantzaketa bikoitzera ez ezik, sor daitekeen edozein gehiegizko finantzaketara ere iristen dela, jatorria edozein dela ere".

EBko SEM Erregelamenduaren 9. artikuluan arabera, **finantzaketa bikoitza** gertatzen da erreformak eta inbertsio-proiektuak Mekanismoak finantzatzen dituenen eta, aldi berean, Europar Batasunaren beste tresna batek finantzatzen dituenen, programa guztiak barnean hartuta, kudeaketa partekatukoak edo zuzenekoak izan, betiere gastu edo kostu bera estaltzen badute.

Horri dagokionez, Finantza Erregelamenduak 188. artikuluan berariaz ezartzen du finantzaketa bikoitzaren debekua, dirulaguntzei aplikatu beharreko printzipio orokor gisa, 191.3 artikuluan garatuta. Artikulu horretan honako hau adierazten da: "*inola ere ezingo dira aurrekontuaren bidez gastu berberak bi aldiz finantzatu*".

Horrez gain, Suspertze Planak finantzaketa bikoitzaren kontzeptua zabaltzen du, dirulaguntza nazionaletatik datozen funtsak Mekanismoaren finantzaketarekin batera gerta daitezen (aipatutako Planaren 4.6.1 atalaren bigarren paragrafoa).

SEEPa kudeatzeko sistema eratzen duen azaroaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua 7. artikuluan adierazten duenez, SEEParen betearazpenean parte hartzen duten

erakundeek estatu-laguntzen araubidearekiko bateragarritasuna eta finantzaketa bikoitzik eza bermatzeko prozedurak aplikatu behar dituzte.

2.6.- IZENA, DOKUMENTU HONEN ONDORIOETARAKO

Aurrerantzean, dokumentu honetan iruzurra aipatzen denean, ulertu behar da aipamen horrek 2.2 puntuan definitzen den moduan aipatzen duela iruzurra, bai eta 2.1 puntuko administrazio-irregularitasunak, 2.4 puntuan jasotako ustelkeria eta 2.4 puntuko interes-gatazkak ere. Iruzurra aipatzen denean, 2.4 puntuan jasotzen den bezala, “iruzurra bera” esango zaio. Finantzaketa bikoitza eta estatu-laguntzekiko bateraezintasuna prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko jarduerak izen horrekin egingo dira.

3.- ARAUDI APLIKAGARRIA

3.1.- Europar Batasuneko araudia

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatua

2017/1371 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko uztailaren 5ekoa, Batasunaren finantza-interesei zuzenbide penalaren bidez eragiten dien iruzurraren aurka borrokatzeari buruzkoa.

2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2018ko uztailaren 18koa, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoa.

2019/1937 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2019ko urriaren 23koa, Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa.

2021/241 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

3.2.- Estatuko araudia

53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasun-egoerei buruzkoa.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen.

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

3/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan aritzea arautzen duena.

5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duena.

424/2017 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.

9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.

128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena

36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.

HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.

HFP/1031/2020 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituen Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko osagaien neurrien mugari eta helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko eta haien aurrekontua eta kontabilitatea betearazteko.

HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.

2/2023 Legea, otsailaren 20koa, Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko.

3.3.- Euskal Autonomia Erkidegoko araudia

1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituena.

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena eta Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitatearen esparru arautzailea onartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.

11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.

BIGARREN ZATIA: DONOSTIAKO UDALAREN INTEGRITATE ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA

1.- INTEGRITATE-PLANAREN ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN ELEMENTU OROKORRAK

1.1.- Planaren xedea

1.- 2022ko martxoaren 15ean, Donostiako Udalaren esparruan EU Next Generation funtsen kudeaketarako Iruzuraren aurkako neurriak eta Integritate Protokoloa onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak, Europar Batasuneko zuzenbidean, 36/2020 Errege Lege Dekretuan, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan adierazitakoaren arabera.

2.- Plan hau iruzuraren aurkako zikloaren lau faseen inguruan egituratzen da, honako hauek prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko: irregulartasunak, iruzurra bera, ustelkeria, interes-gatazkak, finantzaketa bikoitza eta estatu-laguntzen araubidearekiko bateraezintasuna, Europako funtsen kudeaketan eta betearazpenean, eta azken helburua da finantza-kudeaketa onaren, Europar Batasunaren finantza-interesen babesaren eta kudeaketaren emaitzen konpromisoaren printzipioak babestea.

3.- Era berean, Plana sei eranskinekin osatzen da.

1.2.- Planaren izaera eta helburua

1.- Integritate instituzionala eta iruzuraren eta ustelkeriaren aurkako borroka indartzeko estrategiaren elementu nagusia da plana, eta integritatearen arloko plangintza estrategikorako tresna da. Halaber, dokumentu bizia eta irekia da, berehalako helburuak ezartzen baititu eta aldizka berrikusteko eskatzen baitu, erakundearen estandar etikoak etengabe hobetzeko, bereziki Udal hau finantza-baliabide horien erakunde betearazlea edo onuraduna den Europako funtsen kudeaketari eta gauzatzeari dagokienez.

1.3.- Integritate-planaren printzipioak eta iruzuraren aurkako neurriak

Integritatearen eta Iruzuraren aurkako Neurrien Plan honek, Europako funtsen kudeaketari dagokionez, printzipio hauek ditu oinarri:

- a) Integritatea
- b) Inpartzialtasuna eta objektibotasuna
- c) Gardentasuna
- d) Finantza-kudeaketa ona
- e) Europar Batasunaren finantza-interesak babestea

f) Konpromisoa emaitzarekin

g) Kontuak ematea

1.4.- Aplikazio eremu objektiboa

Integritatearen eta Iruzuraren aurkako Neurrien Plan hau udal honetan eta gainerako udal-erakundeetan aplikatzen zaie Udalak eta haren erakundeek kudeatzen dituzten edo onuradun diren Europako funtsei, Europako Batzordeak 2021eko ekainean onartutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaietatik datozenei, HFP/1030/2021 Aginduan ezarritako kudeaketa-sistemaren esparruan, bai eta kudeatzen diren Europako gainerako funtsei ere.

- a) Horrez gain, araudi espezifikoaren arabera betiere, Udalak eta haren udal-erakundeek kudeatzen dituzten edo 2021-2027 aldirako Urte Anitzeko Finantza Esparruko Europako funtsetatik eta inbertsioetik datozen finantza-baliabideak ere jasoko dituzte.
- b) Eta, hala badagokio, Udalak edo haren udal-erakundeek kudeatu ditzaketen edo Suspertze eta Erresilientzia Planetik edo planetatik datozen eta 2023ko abuztuaren 31 baino lehen eskatzen dituzten Europako funtsak, 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

1.5.- Aplikazio eremu subjektiboa

a) Planaren aplikazio-eremu organiko subjektiboa

Integritatearen eta Iruzuraren aurkako Neurrien Plan hau udal-administrazioan aplikatuko da, bai eta apartatu honetan bertan identifikatzen diren sektore publiko instituzionaleko entitateetan ere, hargatik eragotzi gabe dagokion entitateak bertan jasotako neurriak egokitzea edo bereiztea, edo funtsen kudeaketako jarduketek hala eskatzen dutenean. Udal-erakundeak plan honen mende geratuko dira Tokiko Gobernu Batzarrak onartzen dituenetik, gutxienez honako gai hauetan:

- Iruzuraren aurkako Planaren elementu orokorrak eta printzipioak.
- Europako funtsak kudeatzeko integritate-protokoloaren edukia, eta jokabide-kodeak, onartzen direnean.
- Planaren antolamendu-egitura.
- Planarekin lotutako prestakuntza-ekintzak.
- Arriskuen ebaluazio orokorraren metodologia eta kontratazioen, dirulaguntzen, hitzarmenen eta bitarteko propioei egindako enkarguen metodologia espezifikoak.
- Dilema etikoak, salaketak edo alertak planteatzeko barne-kanala atxikitzea eta erabiltzea.
- Zuzenketa- eta jazarpen-neurriak.

Bereziki, sektore publikoko zuzendaritzek, arloek edo erakundeek arriskuen ebaluazioa egokitu ahal izango dute, beren eremu eta egoerei dagokienez, kasu bakoitzean dagozkien egikaritze materialeko eremuen arabera.

Planaren ondorioetarako, sektore publiko instituzionalak honako erakunde hauek hartzen ditu barnean, Donostiako Udalaz gain:

- DonostiaTik, erakunde autonomoa
- Musika eta Dantza Eskola, erakunde autonomoa
- Kiroletako Udal Patronatua, erakunde autonomoa
- Etxegintza, enpresa-erakunde publikoa
- Donostia Kultura, enpresa-erakunde publikoa, eta haren bi sozietate instrumentalak: San Telmo Museoa SA eta Victoria Eugenia Antzokia SA
- Donostia Sustapena, sozietate publikoa
- Donostia Turismoa, sozietate publikoa
- CTSS, sozietate publikoa
- Donostiako Hileta Zerbitzuak (Polloe), sozietate publikoa
- Sociedad del Balneario, sozietate publikoa
- Eguskiza, sozietate publikoa
- Anoeta Kiroldegia SA
- Cristina Enea, fundazioa

b) Plana aplikatuko zaien eragileen eremua

Integritatea indartzeko eta irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria, interes-gatazkak, finantzaketa bikoitza eta estatu-laguntzen araubidearekiko bateraezintasuna prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko neurriak udal-eremuko eragile hauei aplikatuko zaizkie, edo Europako funtsen kudeaketarekin, exekuzioarekin edo xedearekin zerikusia dutenei:

Udal-arduradun publikoak, ordezkari politikoak edo kargu exekutiboak izan, bai eta, hala badagokio, erabaki edo jarduera publikoetan eragina izan dezaketen edo horietan parte har dezaketen behin-behineko langileak ere.

Kudeaketako, kontroleko eta ordainketako lanak egiten dituzten udal-enplegatu publikoak, bai eta zeregin horietako bat edo batzuk eskuordetu edo agindu dizkioten eta kanpora atera dituen beste edozein agente ere.

Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, baldin eta haien jarduketak funtsekin finantzatzen badira eta beren interesen alde jardun badezakete, baina Batasunaren finantza-interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

Kanpoko aholkulariak, profesionalak edo batzordeetako edo lantaldeetako kideak, kontratazio publikoko prozesuen edo dirulaguntzen edo laguntzen aurretiazko lanak prestatzen edo egiten parte hartzen dutenak, bai eta interes-gatazka sor dezaketen azterlanak edo irizpenak egiten parte hartzen dutenak ere.

1.6.- Plana kudeatzeko eta garatzeko antolaketa-egitura

1.6.1.- Planaren Zuzendaritza Politikoa

Alkatetzak egingo du Planaren zuzendaritza politikoa.

1.6.2.- Integritatearen eta iruzurraren aurkako neurrien plana kudeatzeko arduradun teknikoa

Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren kudeaketa planifikatu, zuzendu, koordinatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko funtzio teknikoak Integritate Plana eta Iruzurraren aurkako Neurriak Kudeatzeko arduradun tekniko batek beteko ditu (aurrerantzean, arduradun teknikoa).

Arduradun teknikoak, gutxienez honako eginkizun hauek beteko ditu (baina ez dira denak aipatzen hemen):

- Egokitzapenak sustatzea, planean jasotako integritate-neurriei dagokienez.
- Arriskuen aldizkako ebaluazioa eta beharrezko egokitzapenak egitea.
- Sektore publiko instituzionaleko arlo, zuzendaritza eta entitateei aholkularitza ematea, plana aplikatu eta garatzeko.
- Prozedura-eskuliburuak, lizitazioko baldintza-agirien ereduak, dirulaguntzen deialdirako oinarriak, hitzarmenak edo Europako funtsen kudeaketa hobetzeko beste edozein tresna bultzatzea edo egitea.
- Funtsak kudeatzeko antolamendu-proposamenak eta giza baliabideen proposamenak egitea.
- Planaren kudeaketa eta dinamizazio orokorra.

Arduradun teknikoaren eginkizunek ezin izango dituzte oztopatu hala badagokio ezartzen den Integritate Instituzionalaren Batzordeari (aurrerantzean, Integritate Batzordea) ezarritakoak.

1.6.3.- Proiektuaren arduradunak

SEEParen osagaien proiektuen, azpiproiektuen edo jarduketa-ildoen esparruan, Udalak edo haren sektore publikoko entitateek, Europako funtsen entitate betearazle edo onuradun gisa, egiten dituzten jarduketak arlo, zuzendaritza edo erakunde bakoitzari esleituko zaizkio gaiaren arabera, eta zeharkako egiturak edo batzordeak sortu ahal izango dira ekintza jakin batzuk gauzatzeko.

Proiektu-arduradun bat egongo da proiektu edo programa bakoitzaren buru, betiere Koordinazio Orokorren gainbegiratuta eta hark ezarritako jarraibideen mende, bai eta dagozkien organoek eta, hala badagokio, arduradun teknikoak hartzen dituzten ekimenen eta erabakien mende ere.

Proiektuaren arduradunak, arduradun teknikoarekin koordinatuta, integritate-arduradun bat izendatu ahal izango du eremu horren kudeaketan. Arduradun hori Integritate Batzordearekin harremanetan egongo da, eta integritate-politika bultzatzeko ekintza zehatzak sustatuko ditu. Eginkizun horien arduraduna ez badago, proiektuaren arduradunak hartu ahal izango ditu bere gain eginkizun horiek.

2.- ADMINISTRAZIO-IRREGULARTASUNAK, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES-GATAZKAK PREBENITZEKO, DETEKTATZEKO, ZUZENTZEKO ETA JAZARTZEKO NEURRIAK

2.1.- PREBENTZIO-NEURRIAK

Xedea

Prebentzio-neurrien helburua da hainbat ekintza, tresna eta bitarteko artikulatzea, erakundearen azpiegitura etikoa eta Europako funtsak kudeatzeko sistema bera indartzeko, integritateari dagokionez, eta ikuspegi proaktiboa hartzea, Europako funts horien kudeaketan irregulartasun, iruzur, ustelkeria edo interes-gatazkaren arriskuak arintzearen edo, hala badagokio, saihestearen alde egingo duena.

Neurriak

Plan honen bidez, honako prebentzio-neurri hauek hartu nahi dira, ondoren erakundeak gauzatu eta garatu ditzan:

2.2.1.- Adierazpen politiko bat onestea, erakundearen integritatearen aldeko konpromiso maila gorenari eta ustelkeriaren aurrean zero tolerantziari buruzkoa

Donostiako Udaleko Gobernu Batzordeak, Integritatearen eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plan honekin batera, adierazpen politikoa onetsi du.

2.2.2.- Jokabide-kodeak eta kudeaketa ona onartzeko edo indartzeko estrategia diseinatzea.

Donostiako Udalari printzipio etikoen eta jokabide-printzipioen arloan aplikatu beharreko arau-esparrua jasotzen da.

Udalaren eta sektore publiko instituzionaleko erakundeek azpiegitura etikoa indartzeko helburu hutsarekin, plan honek kontzeptu-esparru bat, tresna-multzo bat eta denbora-plangintza bat eratzen ditu, jokabide- eta kudeaketa-kode egokiak onartzeko estrategia bat ezartzeko, batez ere Batasunaren finantza-interesak babesteko Europako funtsen kudeaketari dagokionez. Azken alderdi hori, azalduko den bezala, Europako funtsen kudeaketaren arloko integritate-protokolo espezifiko batean jasotzen da. Protokolo horren helburua da erakundeak onartutako edo onartuko duen jokabide-kode bat edo batzuk osatzea edo ordeztzea, hala badagokio.

Helburu estrategikoa

Erakundeak integritate instituzionaleko sistema holistiko bat eraikitzeak berekin dakar irregularitasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko mekanismoak oro har indartzea edo finkatzea, eta horrek berekin dakar ahalik eta integritate-esparru edo -sistema holistikoena eraikitzeak inbertitzea. Horretarako, erakundeak autoerregulazio-tresna hauek egitea edo egokitzea sustatuko du:

- Kode integralaren modalitatea:
 - Erakunde osoaren etika- eta jokabide-kodea, bai eta kudeaketa onekoa ere, (jarraian aipatzen diren kodeak barnean hartuko lituzke).
- Kodeen modalitatea, egiturazko segmentuen edo jarduera-eremuen arabera:
 - Goi-kargudunen, zuzendarien eta behin-behineko langileen etika- eta jokabide-kodea, bai eta kudeaketa onekoa ere.
 - Enplegatu publikoaren etika- eta jokabide-kodea, bai eta kudeaketa onekoa ere.
 - Etika- eta jokabide-kodea (edo integritate-protokoloa), kontratazio publikoari aplikatzeko.
 - Etika- eta jokabide-kodea (edo integritate-protokoloa), dirulaguntzei aplikatzeko.

Helburu estrategikoak betetzeko kronograma:

KODE MOTA	JARDUKETA MOTA	ONARTZEKO EPEA
Erakundearen kode integrala (aukera hauetarako)	Onarpena	2025eko ekaina
Kargu publikodunen kodea	Egungo kodea	2025eko ekaina

	egokitzea	
Enplegatu publikoen kodea	Onarpena (EPOETBren osagarria)	2025eko ekaina
Kontratazio Publikoaren Integritaterako Kodea edo Protokoloa	Onarpena	2026ko martxoa
Dirulaguntzen Integritate Kodea edo Prokotoa	Onarpena	2026ko martxoa

2.- Berehalako helburua:

Irregularitasunak, iruzurra, ustelkeria, interes-gatazkak, finantzaketa bikoitza eta estatu-laguntzen araubidearekiko bateraezintasuna prebenitzeko mekanismoak indartzeko berehalako helburu horren helburu bakarra erakundeak Europako funtsak kudeatzea da, eta, beraz, balioak eta printzipioak ezartzea, bai eta Europar Batasunaren finantza-interesak udal-antolakuntzaren barnean, Europako funtsen kudeaketan zuzenean edo zeharka esku hartzen duten eragile guztiek interes-gatazketan jarduteko arau batzuk ezartzea ere.

Berehalako helburua da Europako funtsak kudeatzeko integritate-protokolo batean zehaztea. Protokolo hori I. H. eranskinean jasota dago, eta plan honekin batera onartu da. Hurrengo puntuan jorratuko da.

2.2.3.- Plan honekin batera, berehala onartzea Europako funtsak kudeatzeko Integritate Protokoloa.

Plan honen barruan, Europako funtsak kudeatzeko Integritate Protokolo bat onartzea aurreikusten da. Protokolo hori eranskin gisa gehituko zaio gaur egun Udalean aplikatzekoa den kode etikoari, eta bertan ezarritako eragileei ere aplikatuko zaie. Hala, berehala indartuko dira funts horien kudeaketari aplikatu beharreko integritate-mekanismoak, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, haren edukia berrikustea, behin betiko kodea edo kodeak onartzen direnean eta ezartzen diren baldintzetan eranskin gisa txertatzen denean.

I. eranskinak aipatutako Integritate Protokoloa jasotzen du. Protokolo horrek Balioak eta Printzipioak jasotzen ditu hasiera batean, baina xehetasunez definitzen ditu irismenean, eta, era berean, protokoloa kudeatzeko berme-organo bat aurreikusten du, Europako funtsen kudeaketari dagokionez.

Integritate Plan honen eta Iruzuraren aurkako Neurrien I. eranskinean jasotako Europako Funtsak Kudeatzeko Integritate Protokoloa sei hilabeteko epean berrikusiko da, onartzen denetik zenbatzen hasita, Europako funtsak kudeatzeko lehen urratsen ondorioz egokiak diren aldaketak txertatzeko eta aipatutako autoerregulazio-tresnan ezarritako balio eta printzipioei lotutako jokabide- eta jarduketa-arauak zehazteko.

2.2.4.- Berme komuneko organo bat sortzea, Integritate Batzordea izenekoa, Integritate Protokoloa eta, hala badagokio, erakundeak onartutako jokabide-kodeak kudeatu, aplikatu eta interpretatzeko

Horrelako organorik ez dagoenez, plan honen bidez berme komuneko organo bat sortzea erabaki da, Integritate Batzordea izenekoa, autonomia funtzionala izango duena eta inpartzialtasun- eta objektibotasun-irizpideen arabera jardungo duena. Organo horrek integritate-sistema betetzen dela zainduko du, eta protokoloari, eta, hala badagokio, dauden edo onartzen diren kodeei, integritate instituzionaleko gutxieneko esparru bat emango die, balioei, printzipioei, jokabide-arauei eta jarduketa-arauei kudeaketa eta emaitza eraginkorrak emateko. Batzorde horren osaera eta eginkizunak Integritate Protokoloaren 14. eta 15. puntuetan ezarritakoak izango dira (l. eranskina).

2.2.5.- Integritatearen eta etika publikoaren arloko estrategia bat eta prestakuntza-ekintza sorta bat diseinatzea

Integritate eta Etika Publikoko Prestakuntza Estrategiaren helburua:

Integritatearen eta etika publikoaren arloko prestakuntza-estrategiaren helburua da azpiegitura etiko bat antolatzea, bai eta prebentzioaren eremuan integritatearen kultura indartzea ere, eta, neurri handi batean, erakundeak bere autoerregulazio-tresnen bidez ezarri dituen balioekin, printzipioekin, jokabide- eta jarduera-arauekin bat datozen portaeretan eta ohituretan oinarritzen da, bai eta indarrean dagoen esparru juridikoa eta herritarren eskubideak erabat errespetatzean ere.

Horrela, etikari eta integritateari buruzko prestakuntzak zentzu berezia hartzen du erakundeak Europako Batzordeak bultzatutako programetatik datozen funts publikoak modu partekatuan kudeatzen dituen; izan ere, kasu horietan, barneko arau-esparruaren berezko eskakizunez gain, finantza-kudeaketa onaren eta Batasunaren finantza-interesak babestearen printzipioak sartzen dira jokoan. Ondorioz, kasu horietan, Europako esparru juridikoak (besteak beste, 2018ko Finantza Erregelamenduak eta SEMaren Erregelamenduak) eskakizun gehigarri bat ezartzen du, eta, horren ondorioz, barne-araudiak (36/2020 ELD eta HFP 1030/2021 Agindua) Europako funtsak kudeatzeko sistema bat ezarri du. Sistema horren parte da, zeharkako printzipio gisa, finantza-baliabide horien kudeaketan integritate-mekanismoak indartzea. Horregatik, garrantzitsua da etikari buruzko prestakuntza-programa espezifikoak egokitzea eta, era berean, integritatearen arloko eskumenak eta tresnak garatzea (irregulartasunak prebenitzea, detektatzea eta zuzentzea, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak, finantzaketa bikoitza eta estatu-laguntzak), bereziki Europako funtsen kudeaketari eragiten dion guztian.

Integritate-mekanismoak indartzeko prestakuntza-ekintzen tipologia

Azaldutako helburuak kontuan hartuta, erakundeak honako prestakuntza-ekintza hauek bultzatu behar ditu integritate-mekanismoak indartzeko:

- a) Integritate Planaren eta Iruzurraren aurkako Neurrien edukiarekin duen loturagatik:
- a. Integritate Plana aurkezteko saioa politikariei, enplegatu publikoei eta edukia gauzatzeko interesa duten eragileei (kontratatistak, dirulaguntzak jaso ditzaketen erakundeak, adituak, etab.).
 - b. Integritate Planaren edukiari buruzko bideoak eta/edo material teknologikoa zabaltzea.
 - c. Web orrian eta gardentasun-atarian integritate-plana txertatzea.
- b) Xedearen eta helburuaren arabera:
- a. Europako funtsen kudeaketari aplikatutako integritatearen eta etikaren arloko sentsibilizazio-saioak.
 - b. Etika eta integritateari buruzko prestakuntza-ikastaroak.
 - c. Integritateari buruzko prestakuntza-ikastaroak, Europako funtsak kudeatzeko sistemaren esparruan.
 - d. Kudeaketa publikoko dilema etikoei eta interes-gatazkei buruzko tailerrak.
 - e. Autoikaskuntzako programa birtualak eta etika-pilulak.
- c) Xede-publikoa dela-eta:
- a. Goi-kargudunak, zuzendariak, bai eta behin-behineko langileak ere.
 - b. Europako funtsak zuzenean edo zeharka kudeatzen dituzten edo kudeatu ditzaketen funtzionarioak eta gainerako enplegatu publikoak.
 - c. Enplegatu publikoak, oro har.
 - d. Kontratatistak edo emakidadunak eta dirulaguntzen edo laguntzen hartzaileak.
- d) Esparruaren arabera:
- a. Prestakuntza-programak eta -ekintzak, erakunde osoan etikaren eta integritatearen kultura indartzeko.
 - b. Prestakuntza-programak eta -ekintzak, soil-soilik Europako funtsen zuzeneko edo zeharkako kudeaketan parte hartzen duten edo parte hartuko duten arduradun eta langileentzat etikaren eta integritatearen kultura indartzera bideratuak, administrazio-irregularitasunak, iruzurra, ustelkeria, estatu-laguntzak eta interes-gatazken finantzaketa bikoitza prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzeko, finantza-kudeaketa onaren, Europar Batasunaren finantza-interesak babestearen eta emaitzarekiko konpromisoaren printzipioak zainduz.

2.2.6.- Arriskuak ebaluatzeko kudeaketa-eredu bat definitzea irregulartasunen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken prebentzioaren eremuan

2018ko Finantza Erregelamenduaren 63. artikulua, eta lehen EIE funtsen xedapen erkideei buruzko 1303/2013 Erregelamendua, bai eta HFP/1030/2021 Agindua 6.5 artikulua ere, eskatzen dute Europar Batasunetik datozen funtsak betearazten dituzten agintaritzak nazionalak arriskuak ebaluatzeko prozesuak egin ditzatela, administrazio-irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak arintzeko.

Metodologia eta antolaketa, arriskuen ebaluazioaren arloan. Arriskuen eta integritate-neurrien jarraipena egiteko proiektuaren edo jarduketaren arduraduna.

Plan honetan gai kontzeptualak jorratzen dira, eta ebaluazio-prozesuetan aplikatu ahal izango diren alderdi metodologikoak definitzen dira, abiapuntutzat hartuta prozesu irekiak edo biziak direla, eta, hala badagokio, zehaztuko direla Udalak edo haren sektore publikoko erakundeek, entitate betearazle gisa edo Europako funtsen hartzaille gisa, sektore batzuetako jarduketa zehatz moduan beren gain hartzen dituztenak.

Horrenbestez, udal proiektu edo jarduketa bakoitzean, arriskuen matrizean beharrezkoak diren egokitzapenak identifikatuko ditu arduradun teknikoak edo, hala badagokio, proiektuaren arduradun izendatutako pertsonak. Ebaluazio hori proiektuaren arduradun izendatutako pertsonak egiten duenean, pertsona horrek arduradun teknikoaren adostasuna eskatuko du egokitzapen horiek egin aurretik, homogeneizatzeko. Era berean, eta modu berean jardunez, Europako funtsekin finantzatzeko proiektu edo jarduketetan parte hartzen duten eragileek integritate-estandarren hobekuntza bultzatu beharko du.

Proiektuaren arduradunak dagozkion proposamenak bideratu behar dituztenean, horiek arduradun teknikoari edo, hala badagokio, Integritate Batzordeari helaraziko dizkio, arriskuak ebaluatzeko prozesuak edo dilema etikoak edo salaketak diren kontuan hartuta, organo bakoitzaren eskumenen arabera.

Arriskuen kudeaketa, prozesu gisa, integritatearen eremuan ere, hiru faseren bidez gauzatzen da:

1. Integritatearen arloan arriskuak agertzeko arrisku handiena duten erakundearen jardura-eremuak identifikatzea.
2. Arrisku-mapak eta arrisku-matrize bat egitea, arrisku bakoitzak erakundearen prozesuetan eta jarduketetan duen eragina zehazteko, eta arrisku oso handia, handia edo txikia dakartenak definitzeko.
3. Bereziki arrisku oso handia edo handia dagoen kasuetan abian jarri beharreko neurri zuzentzaileak hartzea.

ARRISKUEN EBALUAZIOAREN HELBURUAK INTEGRITATEAREN ARLOAN

- a) Barne-ezaugarrien edo kanpo-eraginen arabera irregulartasun, iruzur, ustelkeria edo interes-gatazken aurrean kalteberenak izan daitezkeen arlo, prozesu eta jarduketak detektatzea.

- b) Erakundearen erabakiak hartzeko edo kudeatzeko prozesuetan parte hartzen duten eragilearen sentsibilizazioa bultzatzea, iruzurraren edo bestelako jokabide irregularren prebentzioaren eremuan.
- c) Indarrean dagoen arau-esparrura, autoerregulazio-tresnetan ezarritako balio eta printzipioetara egokitutako portaera eta jokabide profesionalak garatzea, bai eta Europar Batasunaren finantza-kudeaketa onaren eta finantza-interesak babestearen printzipioen eraginkortasuna lortzeko ere, Suspertze Planarekin edo Europako beste funts batzuen kudeaketarekin lotutako proiektu, azpi-proiektu edo jarduketaren kudeaketan.
- d) Zehaztea jardura edo prozesu jakin batzuek zer neurritan eragin diezaieketen erakundearen xedeei eta helburuei.

ARRISKUAK IDENTIFIKATZEA ETA ANTOLAKETA-TESTUINGURUA

Erakundearen diagnostikotik eta testuingurutik eratorritako koordinatuetatik abiatuta identifikatu behar dira bai arrisku-arloak, bai jarduketak eta prozesuak, bai eta esparru espezifikoak ere, integritatea kaltetzen duten portaera edo jokabideen eragin handiena jasan dezaketenak.

Era berean, arrisku puntualak identifikatzeak zerikusi zuzena du esleitutako funtzioekin eta funtzio horiek gauzatzearekin.

Adibidez, Europako funtsen kudeaketan, kudeaketa-prozesuak azkarragoak izan behar dira, epeak, bermeak eta izapideak laburtu behar dira, finantza-kudeaketak funtsezko zeregina du, finantza-baliabideen gastua dirulaguntzen bidez bideratzen da, kontratazio publikoa bereziki garrantzitsua da funts horien eraginkortasuna bermatzeko, lankidetzaren publiko-pribatuak interes-gatazken eremuak ireki ditzake, eta abar.

Udalaren eta sektore publiko instituzionaleko erakundearen jardura-eremuan, bereziki nabarmentzen dira departamentuak esleituta dituen zeharkako eskumenei lotutako arriskuak, hala nola kontratazio publikoari eta langileen kudeaketari lotutakoak, baita ekonomia- eta finantza-arloari lotutakoak ere, arlo horretako eskumen propioak eta dirulaguntzak alde batera utzi gabe.

ZER ARRISKU IDENTIFIKA DAITEZKE USTELKERIA-, IRUZUR- EDO IRREGULARTASUN-FENOMENOEN ETA INTERES-GATAZKEN GERTUKO EGOERA EDO AURREKARI GISA?

Sektore publikoaren eremuan, ustelkeria- edo iruzur-adierazpen patologikoak eragin ditzaketen arrisku nabarmenenak honako hauek dira, adibidez:

- Interes-gatazkak
- Bidegabeko eralgitzea
- Iruzurra nahita egindako engainu gisa, bidegabeko abantaila bat lortzeko
- Faboritismoa

- Nepotismoa
- Klientelismoa, politikoa edo sindikala
- Kolusio-praktikak

ARRISKUEN EBALUAZIOA INTEGRITATEAREN ARLOAN

Arriskuaren ebaluazioak, integritatearen arloan ere, arriskuaren mailaketa bi faktoreren bidez zehaztea dakar:

- Arriskua gertatzeko probabilitatea (handia, ertaina edo txikia), bi elementuren inguruan neurtzen dena:
 - Zer maiztasunekin edo zenbat aldiz agertu den arrisku bat
 - Arriskua leuntzeko, arintzeko edo saihesteko neurririk dagoen edo ez, eta hori Plan honetan jasotako prebentzio- eta zuzenketa-neurriekin alderatu behar da.
- Arrisku horrek erakundean eragiten duen inpaktua, arrisku jakin batek erakundearentzat dituen ondorioetan islatzen dena (ospeareen galera, herritarrenganako konfiantza-krisia, alarma soziala, erakundearen klimaren edo atmosfera etikoaren narriadura, jardunbide desegokietatik ugaritu daitezkeen joerak sustatzea, etab.).

ARRISKU-MATRIZEA

Kasu bakoitzean dagoen larritasun-eskala ezartzea, probabilitatearen eta inpaktuaren arabera. Arrisku horiek arintzeko edo saihesteko neurriak ere jaso beharko lituzke.

Probabilitatea/ Larritasuna	Txikia	Ertaina	Handia
Handia	Neurritsua	Handia	Handia
Ertaina	Txikia	Neurritsua	Handia
Txikia	Txikia	Txikia	Neurritsua

ARRISKUAREN TRATAMENDUA

Arrisku gordina (edo berezkoa) hura kalifikatzeko eta tratatzeko jarduerarik oraindik sortu ez denean gertatzen da; arrisku garbia, berriz, ebaluazioa egin eta haren eragina kalifikatu ondoren sortzen dena da, eta, hala badagokio, hura murrizteko edo kontrolatzeko neurri egokiak aplikatzen dira. Arrisku handiak alerta-iturri izan behar dira baliabide horien erabakitzailerik eta kudeatzaileentzat.

Arrisku mota bakoitzaren sailkapenak edo kokapenak haren larritasun- eta inpaktu-mailetara egokitutako erantzuna dakar.

Arriskuaren tratamendua:

- Ebaluazioaren ondorio bat da.

- b) Arriskuak irregularitasunetara, iruzurrik edo ustelkeriarik ez sortzeko neurriak zehazten ditu.
- c) Lehen neurriak prebentziozkoak dira, eta jarduketa ez-osoak agertzeko edo errepikatzeko probabilitatea murriztera bideratuta daude.
- d) Era berean, barne-kontrolako neurri batzuk garrantzitsuak dira, eta horien artean daude funtzio kontu-hartzailea eta barneko edo kanpoko finantza-kontrola (auditoretzak), bai eta, bereziki, arrisku handiena duten arlo eta jarduketan gaineko kontrol-jarduketan biderkatze selektiboa ere.

Ohar garrantzitsua:

II.A eranskinean arriskuen ebaluazioa egiteko prozedura zehazten da. Ebaluazio hori horretarako diseinatutako tresna informatikoarekin egin beharko da, eta egokitu eta aldatu ahal izango da eremu jakin batzuetan Europako funtsak kudeatu behar direnean, lehen deskribatutako antolaketa- eta arriskuen ebaluaziorako metodologian ezarritakoaren arabera.

2.2.7.- Funtsak kudeatzeko antolamendu-neurriak ezartzea.

Europako funtsak gauzatzean inpartzialtasuna eta objektibotasuna babesteko, eta itxurazko edo balizko interes-gatazkak saihesteko, Planak argi eta garbi bereizten ditu kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-rolak. Rol horiek definituta daude kudeaketa-egituran, esku hartzeko eta auditoretzako sisteman, bai eta ordainketarenean ere, hainbat organoren eta, hala badagokio, atal desberdinen bidez.

Kudeaketako eta barne-kontrolako sistemak, Donostiako Udalari aplikatu beharreko arau-esparruaren arabera, argi eta garbi mugatuta daude, eta kudeaketa organo betearazleari dagokio, eta barne-kontrola, finantza- eta kontabilitate-dimentsioetan, Kontuhartzaitzari, eta, era berean, Diruzaintzaren eskumena den ordainketaren antolamendua bereizten da.

2.3.- DETEKZIO-NEURRIAK

Iruzurraren aurkako zikloaren bigarren fasean, kasu honetan administrazio-irregularitasunak, iruzurra, ustelkeria edo interes-gatazkak detektatzeko neurriak antolatu behar dira.

Fase hau aktibatzen da aurreko epigrafean Iruzurraren Aurkako Neurrien Plan honetan jasotako prebentzio-neurriek huts egiten duten kasuetan.

Detekzio-faseak irregularitasuna, iruzurra, ustelkeria edo interes-gatazka gauzatzea saihestu dezake, edo, gutxienez, ondorioak arindu ditzake.

Detekzio-neurriak

2.3.1.- Barneko informazio-sistemak antolatzea.

Sistema horrek irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria edo interes-gatazkak detektatzeko funtzioa izango du.

Barneko informazio-sistemari dagokionez, 2019/1937 Zuzentarauaren eta haren transposizio-arauaren arabera (2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena), erakundeak barneko informazio-sistema bat du, eta bertan sartzen da salaketen barne-kanala, araudi horren premisekin bat datorrena.

Salaketen barne-kanal horretan, printzipio eta arau hauek bermatzen dira irregulartasunak, iruzurrak, ustelkeria edo interes-gatazkak detektatzeko tresna horren funtzionamenduan eta erabileran.

2.3.1.1.- Artikulazio-printzipioak.

- a) Konfidentzialtasuna
- b) Salatzailearen kaltegabetasun-bermatzea
- c) Noranzko biko komunikazioa egitea, betiere salaketak anonimoak ez badira.
- d) Salatzailearen edo alerta-emailaen datu pertsonalak babestea.
- e) Salaketak eraginkortasun- eta prozedura-berme guztiekin kudeatzea, kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeriaren arabera.
- f) Salaketak informaltasun-printzipioaren arabera aurkeztea, horretarako aplikazio elektronikoan eskatzen direnak baino datu gehiago bete gabe, eta, nolana ere, berariaz jasota uztea salatutako egitateak, kaltetuak izan daitezkeen pertsonak eta salaketa horren oinarri diren frogak edo zantzuak.

2.3.1.2.- Salaketaren edukia

Ustez iruzurrekoak diren jarduketak jakinarazteko informazioak honako hauek jaso beharko ditu:

1.- Gertakarien deskribapena, ahalik eta zehatzen eta zehatzena, eta, ahal den neurrian, honako hauek identifikatuta: gertakarietan parte hartu duten pertsonak; ustezko irregulartasunak edo iruzurrak eragindako negozioak, deialdiak, tresnak edo espedienteak; egitateak gertatu ziren data zehatza edo gutxi gorabeherakoa; eragindako finantza-funtsa edo -tresna; laguntzak kudeatu dituen organoa edo erakundea; eta, horrez gain, eta hala badagokio, informazioa igorri zaien organoak edo erakundeak.

2.- Jakinarazitako egitateak egiaztatzea eta gertakari horiei dagozkien jarduketak egitea errazten duen dokumentazioa edo edozein froga-elementu.

3.- Ez da beharrezkoa informatzaileak informazio pertsonalik ematea kontsulta egin edo salaketa bat aurkeztu ahal izateko.

2.3.1.3.- Funtzionamendua

1.- Sistemaren kudeaketa Integritatearen eta Iruzuraren aurkako Neurrien Planaren arduradun teknikoari dagokio.

Salaketa-kanal horri atxikitako udal-erakundeen kasuan, erakunde horietako organo eskudunek izendatutako pertsonak kudeatuko du.

2.- Jasotako mezuak konfidentziasun osoz tratatuko dira, eta mezu anonimoak bidaltzeko aukera emango du.

3.- Berariazko neurriak ezarriko dira salatzailea fede onez babestuko dela bermatzeko, ikerlanak iraun bitartean eta ondoren ez dezan izan inolako isolamendurik, jazarpenik edo okerragotzerik lan-baldintzetan, ez eta inolako kalte edo diskriminaziorik ere.

4.- Iruzur-kasu potentzial edo baieztatu baten aurrean, organo eskudunak informazio erreserbatuko prozedura bat izapidetuko du. Prozedura horrek kasuaren azterketa sakona eskatuko du, eta, bertan, egin beharreko jarduketa, proba eta ebazpen guztiak dokumentatu beharko dira, plan honen 2.5.2 puntuan ezarritako moduan jardunez.

5.- Integritaterako eta Iruzuraren Aurkako Neurrien Planaren arduradun teknikoak kudeatuko du salaketa-kanala.

a) Salaketak jasotzea.

Arduradun teknikoak aurkeztutako salaketak aztertuko ditu, eta honela jardungo du:

- Jasotako salaketak aztertuko dira, eta, horretarako, informazioa eskatu ahal izango zaie bai aurkeztutako salaketaren xede diren administrazio-organoei edo erakunde instrumentalei, bai salaketaren eraginpean egon daitezkeen zeharkako organoei.
- Jasotako salaketa ez da bideratuko argi eta garbi funsgabea bada, edo bidalitako informazio-eskasiak, egitateen deskribapen orokorregiak edo zehaztugabeegiak edo emandako froga-elementurik ezak ez badio instrukzio-organoari aukerarik ematen jasotako informazioa arrazoizko modu batean egiaztatzeko eta jakinarazitako egitateei eman beharreko tratamendua gutxieneko batean zehazteko. Era berean, ez dira bideratuko argi eta garbi fede txarrez egiten diren salaketak, edo informazio faltsua edo legez kontra lortutakoa ematen dutenak. Kasu horietan guztietan, aurkeztutako salaketa artxibatuko da, eta artxibatzearen arrazoiak jasoko dira.

b) Salaketen tratamendua.

Aztertutako egitateak eta aplikatu beharreko araudia ikusita dagokionaren arabera:

1. Organo eskudunari eta Integritate Batzordeari helaraziko zaie salaketa, jakinaren gainean egon daitezen, ikertu dezaten, izapidetu dezaten eta dagokion prozedura proposa dezaten. Horren barruan sartzen dira diziplina-prozedurak, itzultze-prozedurak edo prozeduraren bat etetea irregulartasun-salaketa oinarritutako baten gainean, bai eta, hala badagokio, dagokion plana eguneratzea ere.
2. Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari, Iruzuraren aurkako Borrokaren Europako Bulegoari (OLAF) edo, hala badagokio, Fiskaltzari edo justizia-auzitegiei helaraziko zaie salaketa.
3. Aurkeztutako salaketa artxibatzea erabakiko da, hala badagokio, eta artxibatzeko arrazoiak jasoko dira.

Salaketa kudeatzean, une oro bermatuko da salatzailearen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, bai eta haren tratamendu anonimizatua ere, salatzailearen ukigabetasuna bermatzeko.

Urtean behin txosten bat egingo da jasotako eta izapidetutako salaketei buruz.

2.3.1.4.- Kanpo salaketa-kanalak

Lehen jasotako salaketen barne-kanalaz gain, alerta-emaileak edo salatzaileak zuzenean jo ahal izango du salaketen kanpoko kanaletara, beste erakunde batzuetara jo ahal izatea eragotzi gabe (Kontu Auzitegia, Fiskaltza, etab.).

Nolanahi ere, salaketak kanpoko kanal hauen bidez ere bideratu daitezke:

Iruzuraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionala (SNCA), IGAERI lotua, SEMetik datozen Europako funtsen arloko Kontrol Agintaritzak: <https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/paginas/denan.aspx>

OLAF, Iruzuraren aurkako Europako Agentzia: https://fns.olaf.europa.eu/main_es.htm

2.3.2.- Bandera gorrien zerrenda bat aurreikustea

Bandera gorrien zerrendak alerta-sistema gisa jardungo du irregulartasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria edo interes-gatazka agertzeko arriskua handia edo ertaina denean.

HFP 1030/2021 Aginduak 6.5 artikuluan aurreikusten du Iruzuraren Aurkako Neurrien Planak honako errekerimendu hauek jaso behar dituela, besteak beste: *"Alerta-seinaleetara egokitutako detekzio-neurriak egotea aurreikustea eta neurri horiek eraginkortasunez aplikatzeko prozedura definitzea"*. Tresna hori, beraz,

irregularitasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta detektatzeko mekanismo erabilgarria da.

Bandera gorri horiek identifikatzeko eta haien irismenerako, OLAFek bere garaian egindako dokumentuak erabiliko dira, eta, hala, Plan honen III. eranskinean Bandera Gorrien Katalogo bat jasotzen da. Katalogo hori aldian-aldian berrikusiko da, hura aldatu edo kasu berriak sartu behar direla ikusten den heinean.

Gainera, III. eranskinean jasoko da bandera gorriak detektatuz gero jarraitu beharreko prozedura.

2.3.3.- Jardueren eta, hala badagokio, interesen, ondasunen edo ondareen adierazpenak.

Dagoeneko nabarmendu da jarduera-adierazpenek duten garrantzia irregularitasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko mekanismo gisa; hala ere, haien eraginkortasun garrantzitsuena, disuasio-ekintzaz gain, iruzurrezko jarduerak, irregularitasunak, ustelkeria-egintzak edo interes-gatazkak jokoan dauden egoerak zein kasu eta egoeratan gerta daitezkeen identifikatzeari edo detektatzeari buruzkoa da. Beraz, detekzioaren atalean egiten duen analisia oso garrantzitsua da, zalantzarik gabe.

HFP 1031/2021 Aginduak 6.4 artikuluan jasotzen duenez, organo kudeatzaileentzako nahitaezko jarduketetako bat, iruzur-arriskuaren ebaluazioarekin batera, Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) betetzea da, bai eta interes-gatazka horiei aurre egiteko prozedura bat onartzea ere.

Bestalde, 6.5 artikuluko i) letrak berriro azpimarratzen du IGEA hori onartu behar dela, planaren gutxieneko eskakizunen barruan, besteak beste, honako hau txertatzea aurreikusten baitu: "Zehazki, interes-gatazken egoerak prebenitzeko eta zuzentzeko prozedurak definitzea, EBren Finantza Erregelamenduaren 61. artikuluen 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoaren arabera. Nahitaez sinatu beharko dute SEEPa betearazteko prozeduretan parte hartzen dutenek IGEA bat, nagusi hierarkikoari jakinarazi beharko diote edozein interes-gatazka egon daitekeela, eta hark kasu bakoitzean dagokion erabakia hartu beharko du".

Ministro Aginduan IGEA interes-gatazkak prebenitzeko tresna gisa jasotzen bada ere (zalantzarik gabe, hala da), ezin da baztertu adierazpen hori lotuta egotea dagokion adierazpenean hartutako betebeharrak saihesten dituzten jarduketak, jokabideak edo portaerak hautematearekin eta zuzentzearekin eta jazartzearekin. II B 5 eranskinean aurreikusitako autoebaluazio-testak gai hori jasotzen du prebentzio-neurrietan ("Esku-hartzaile guztiek interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat betetzen al da?"), baina haren ondorioak, adierazi den bezala, IGEAren disuasio-ondorioak nahikoak ez diren kasuetan planteatzen den detekzio-fasean aplikatzen dira.

Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan araututako prozeduraren arabera, agindu horren 3. artikuluan aipatutako langileek IGEA espezifikoa sinatu beharko dute, HFP/1030/2021 Aginduaren IGEAz gain, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planarekin finantzatutako dirulaguntzak eta kontratuak prestatzeko eta izapidetzeko prozesuan parte-hartzaile gisa duten inpartzialtasuna bermatzeko.

Kontratuei eta dirulaguntzei aplikatzekoa den urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan zehazten diren eragiketen arduradunek data mining MINERVA aplikazioarekin gurutzatu beharko dituzte datuak, agindu horren 4. artikulutik 7. artikulura xedatutakoari jarraikiz.

2.3.4.- Datuak kudeatzeko eta trazabilitaterako tresnak sartzea.

HFP 1030/2021 Aginduaren 6.5 artikuluko eskakizunen artean, alerta-sistemak behar bezala funtziona dezan beharrezkoak diren detekzio-neurri guztiak planean txertatzeko aurreikuspena jasotzen da. Aurrekoarekin lotuta, III. C eranskinak ezartzen du zentzu horretan garrantzitsua dela “Datuak analizatu” deritzona, detekzioaren eremuan gutxienez honela aplikatzen dena:

- Datu pertsonalen babesa errespetatzeak beti dakartzan mugen barruan (gaur egun DBEOk indartzen du esparru hori), ustelkeria eta iruzurra detektatzeko tresna garrantzitsu bat da “datuak gurutzatzea sektoreko beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin, arrisku handiko egoerak detektatzeko, baita Europako funtsak eman aurretik ere.
- Ildo horretako tresna batzuk dira, adibidez, Dirulaguntzen Datu Basea (BNDS), erakunde publikoen kontratazio-plataformak, kontratisten erregistroak, Merkataritza Erregistroa, datuen prospekzioarako tresnak (data mining), REVASCON (Kontratuen Euskal Erregistroa), Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforma edo Europako Batzordearen datuen prospekzioarako edo arriskuen puntuazioarako tresnak (ARACHNE, DAYSI), 2014-2019 urte anitzeko finantza-esparrutik datozenak, etab.

2.4.- NEURRI ZUZENTZAILEAK

2.4.1.- Sarrera

Iruzurraren aurkako zikloaren hirugarren faseak irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak zuzentzean datza.

Egia esan, irregulartasunen, iruzurraren edo ustelkeriaren susmo edo ebidentzia batzuk agertu badira, Udalak eta sektore publiko instituzionaleko udal entitateek, organo eskudunen bidez, zenbait neurri hartu behar dituzte, besteak beste, proiektuak erretiratzea, aurretiazko jarduketak hastea edo zuzenketa-neurri osagarriak hartzea, agintari eskudunei gertatutakoaren berri emateko.

Zuzenketa- eta jazarpen-faseek, beraz, trazadura sekuentziala dute, eta batzuetan uztartu ere egin daitezke; baina zuzenketaren helburua da kalte handiagoak saihestea edo arintzea, eta, horrela, Europar Batasunaren finantza-interesak babestea, jokabide horien ondorioz erakundearen irudia eta ospea kaltetzea arinduz.

6.5 artikulua f) letrak ezartzen duenez, neurrien planak, besteak beste, “*neurri zuzentzaile egokiak definitu behar ditu iruzur-kasu susmagarri bat detektatzen denean, iruzur-susmoak jakinarazteko mekanismo argiekin*”.

2.4.2.- Iruzur posible bat detektatuz gero egin beharreko jarduketak

Arduradun teknikoak aurretik deskribatutako salaketa-kanalaren bidez edo beste edozein bitartekoren bidez aurkeztutako iruzur-susmoaren berri badu, gaiaren arabera eskumena duen zerbitzuari eskatuko dio eskura duen beharrezko informazio guztia eta ebidentziak bildu ditzala, kasuaren ondorengo analisia errazteko.

“Bandera gorriak” izeneko zenbait adierazle agertzea izango da iruzurra dagoela zehazteko irizpide nagusietako bat.

Balizko iruzurra edo haren susmo arrazoitua detektatuz gero, arduradun teknikoak hauteman den prozedura zehatzaren etendura baloratuko du, eta ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie organo eskudunari eta Integritate Batzordeari, honako neurri hauek har ditzaten:

- Inguruabar hori ahalik eta lasterren jakinarazi beharko zaie agintaritza interesdunei eta jarduketak egiten parte hartzen duten erakundeei, eta nola garatuko den, jazarpen-neurrietan zehaztutako moduan.
- Iruzurraren eragina ebaluatzea eta sistemiko edo puntual gisa kalifikatzea, hurrengo apartatuan deskribatutako moduan.
- Proiektuaren eraginpean egon ahal izan diren proiektu guztiak berrikustea.
- Hala badagokio, atzemandako gorabehera identifikatzen duten espediente guztietatik EBren finantzaketa kentzeko eskatzea.
- Unitate betearazleei jakinaraztea zer neurri hartu behar diren hautemandako ahultasuna konpontzeko, aurkitutako gorabeherak berriro gerta ez daitezen.

2.4.3.- Iruzurraren, ustelkeriaren edo interes-gatazken eragina puntuala edo sistemikoa den ebaluatzea

Ustezko iruzur bat detektatu ondoren, identifikatu behar da ea Udalak edo sektore publiko instituzionaleko erakundeek hautemandako irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria edo interes-gatazkak unean unekoak diren edo inguruabar sistematiko bihurtu diren, horrek erakundeen ospean izan ditzakeen ondorioak kontuan hartuta.

Arduradun teknikoak egingo du ebaluazio hori, eta sistemikoa dela jo beharko du, baldin eta kudeatutako finantza-baliabideek edo erakundea onuradun duten finantza-baliabideek iruzurrari eragitea erakundeak berak kudeatu edo gauzatutako proiektu, azpiproiektu, programa edo jarduketa horren guztizkoaren % 33 baino gehiago bada.

Halakorik ezean, iruzur sistemikotzat hartuko da iruzurra, berez, behin eta berriz eta antzeko prozeduretan egin ahal izan dela erakusten duten frogak daudenean; iruzur puntualtzat, berriz, beste batzuetan errepikatu ez den gertakari isolatu bat dela ikusten denean joko da.

Arduradun teknikoak gorabehera sistematikoa dela ondorioztatzen duenean, organo eskudunak kautelaz etengo d(it)u proiektua(k), eta berehala jakinaraziko dio Integritate Batzordeari, eta horrek egokitzat jotzen dituen neurriak proposatuko ditu.

2.4.4.- Proiektuak edo proiektuen zati bat erretiratzea.

HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 artikulua f), g), h) eta i) letretan ezarritakoaren arabera, arduradun teknikoak, Europako funtsen kudeaketan iruzurra edo ustelkeria egon daitekeelako susmo oinarrituta hautematen duenean, proiektuak, azpiproiektuak edo horietako batzuk kentzea proposatu ahal izango du, inguruabar horiek eragin badiezaiekete.

2.4.5.- Beste neurri zuzentzaile osagarri batzuk hartzea:

Neurri horiek aurretiazko jarduketak eta prozedura administratiboak edo penalak hasi aurreko ikerketak izango dira, eta kontrol-organoen jarduketaren bidez egingo dira.

2.4.5.1.- Iruzur posible bat modu horretan detektatu bada edo jarduketa irregular hori egin ahal izan delako susmoa badago, Integritate Planaren eta Iruzuraren aurkako Neurrien arduradun teknikoak, edozein zehapen- edo diziplina-prozedura hasi aurretik, hala badagokio, informazio- edo jarduketa-aldi bat irekitzeko eskatu ahal izango du, kasu zehatzaren inguruabarrak ezagutzeko eta dagokion diziplina- edo zehapen-prozedura hastea komeni den ala ez zehazteko. Kasu horretan, jarduketa horien xedea izango da ahalik eta zehaztasun handienarekin zehaztea prozedurari hasiera ematea eragin dezaketen egitateak, pertsona edo pertsonak identifikatzea eta kasu horietan dauden inguruabar garrantzitsuak zehaztea, eta Integritate Batzordeari ere horren berri emango zaio.

2.4.5.2.- Europar Batasunaren finantza-interesak babestu nahi direla kontuan hartuta, eta, nolanahi ere, Europako aurrekontutik datozen baliabide horiek aurreikusitako helburuetara ez bideratzea saihestuz, Udalak bizkortasun-printzipioaren arabera bideratu beharko ditu aurretiazko jarduketak, finantza-baliabideak berreskuratu ahal izatea bermatzeko, prozeduran interesa dutenen eskubideak babestea eragotzi gabe.

2.4.5.3.- Era berean, Integritate Batzordeak dagokion organoari helaraziko dio, EBko Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta detektatutako iruzurrak edo iruzur-susmoak, hala badagokio, kondena penala jaso dezaketen ustezko egitateak egitea ekar badezake, hark Fiskaltzari edo agintaritzak judizialari berehala jakinarazi diezazkion.

2.4.5.4.- Era berean, Udalak, 2018ko Finantza Erregelamenduaren 129. artikulua horretan bertan oinarrituta, iruzurra detektatzen den kasuetan edo haren susmoa dagoenean, aktiboki eta leialki lankidetzan jardungo du agintaritzak eskudunekin, kanpo-kontrolako organoekin, fiskaltzarekin eta agintaritzak judizialekin, eta, hala gertatzen denean, Europako Batzordeak, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoak edo Herri Kontuen Europako Auzitegiak egiten dituzten jardurekin.

2.4.5.5.- Nolanahi ere, iruzur posible bat edo iruzurra dagoelaren susmo irmoak detektatu ondoren, Udalak lehen azaldutako neurriak hartuko ditu, eta, zehazki, HFP/1030/2021 Aginduaren 6.6 artikuluan jasotakoak.

2.5.- JAZARPEN NEURRIAK

2.5.1.- Sarrera

Iruzurraren aurkako zikloaren azken fasea iruzurra bera eta ustelkeria jazartzea da. Dagoeneko nahikoa zantzu daude administrazio-izaerako jarduketa irregularrak egin direla (erakundeak berak edo administrazio-agintariak zuzendu ditzaketenak) edo penalki jazartu daitezkeen edo, hala badagokio, hala izan daitezkeen egitateak egin direla pentsatzeko.

Aurreko faseetan, Udalak prebentzio-neurriak, detekzio-neurriak edo zuzenketa-neurriak har zitzakeen jazarpenaren eremuan, baina jazarpenaren esparruan, berriz, erakunde eskudunekin modu aktiboan lankidetzan aritzera bideratuta bakarrik egon daitezke jarduerak, era horretan, iruzur- edo ustelkeria-kasuak modu eraginkorrean jazartu ahal izateko, langileekiko diziplina- edo zehapen-jarduketen inguruan izan ezik; zuzenketa-fasean ikusi dugun moduan, kasu horretan horrelako neurriak har baitaitezke.

Jazarpen-jarduera egiteak esan nahi du erakundearen ospea kaltetu dela dagoeneko, eta, kasu batzuetan, iruzurraren edo ustelkeriaren xede diren Europako funtsak berreskuratzeko benetako aukerak mugatuak edo konplexuak izan daitezkeela. Hala eta guztiz ere, Udalak eskura dituen bitarteko guztiak jarri behar ditu Europar Batasunaren finantza-interesei ez erasateko helburua modu eraginkorrean babes dadin.

2.5.2.- Informazio erreserbatua eta diziplina- edo zehapen-prozedurak abian jartzea

Iruzur-kasu potentzial edo baieztatu baten aurrean, organo eskudunak informazio erreserbatuko prozedura bat izapidetuko du. Prozedura horrek kasuaren azterketa sakona eskatuko du, eta, bertan, egin beharreko jarduketa, proba eta ebazpen guztiak dokumentatu beharko dira.

Informazio erreserbatua ez da diziplina-espedientearen parte izango; izan ere, espedienteak abian jartzeko edo abian ez jartzeko erabakia oinarritzeko eskumena duen organoari irizpen-elementuak ematea izango da haren helburu bakarra. Hala ere, diziplina-espedientearen barruan, informazio erreserbatuan bildutako dokumentazioa eta frogak txertatu ahal izango dira.

Informazio erreserbatuaren prozesua amaitu ondoren, ukitutako pertsonen ekintzen edo ez-egiteen ondorioz zuzendu ez diren irregulartasun administratiboak edo interes-gatazkak hauteman diren kasuetan, Integritate Batzordean parte hartuz informazio-ondorioetarako eta, hala badagokio, neurriak proposatzeko, Udalari edo sektore publiko instituzionaleko haren erakundeei jakinaraziko die, organo eskudunaren bidez,

kasu bakoitzean indarreko arau-esparruan aurreikusitako diziplina- edo zehapen-prozedura abian jarri ahal izan dezan.

Diziplina- edo zehapen-prozedura hori izapidetzearen ondorioz zehapenak ezartzen badira, erakunde erabakitzaileari jakinaraziko zaio, edo, hala badagokio, erakunde betearazleari, baldin eta hori Udala ez bada.

Ebazpen horiek Europako funtsen kudeaketaren arloko organo eskudunei ere helaraziko zaizkie.

2.5.3.- Gertakariak eta hartutako neurriak agintari eskudunei jakinaraztea

Udalak, organo kudeatzailea edo Europako funtsen hartzailea edo onuraduna den kontuan hartuta, balizko iruzur-egoeren aurrean jardun beharko du, eta gertakari horien berri eman:

a) Organo kudeatzailea, erakunde betearazlea edo, hala badagokio, erabakitzailea bada.

b) Beste erakunde edo organo kudeatzaile batek kudeatutako edo gauzatutako Europako funtsen hartzailea edo onuraduna denean, eta berehala jakinarazi beharko dio beste erakunde horri.

Eta hori guztia, HFP/1030/2021 Aginduaren III. C eranskinean xedatutakoa betez, jazarpen-faseko iruzur- eta ustelkeria-kasuak jorratzen dituenean, honako hau xedatzen du eranskin horrek: *“ahalik eta lasterren jakinarazi behar zaizkio gertatutako egitateak eta hartutako neurriak erakunde erabakitzaileari (edo jarduketan betearazpena agindu dion erakunde betearazleari; kasu horretan, azken horrek jakinaraziko dizkio erakunde erabakitzaileari), eta hark, halaber, agintaritza arduradunari jakinaraziko dio gaia, eta hark egokitzen jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du, kontrol-agintaritzak jarraipena eta komunikazioa egin ditzan”*.

2.5.4.- Ustezko iruzur-kasuak estatuko edo Europar Batasuneko agintari publikoen aurrean salatzea, baita fiskaltzaren edo auzitegien aurrean ere.

Ustezko iruzurra benetan badagoela egiaztatzen bada edo iruzurra egin izanaren susmoak badaude eta horretarako zantzueta oinarrituta oinarritzen badira, kasu horretan Udalak –baita kasu batzuetan ere Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan ezarritako lankidetzeta-betebeharraren arabera– honako jarduketa edo ekintza hauetakoren bat egin beharko du:

a) Egitate zigorgarriak salatu, hala badagokio, agintari publiko eskudunei, hau da, Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari (SNCA) edo, hala badagokio, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari (OLAF).

b) Hala badagokio, erantzukizunak argitzeko edo diziplina-espediente bat hasteko informazio erreserbatua abian jarri, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 55. artikulua arabera, zuzenketa-fasean eta fase honen 2. puntuan adierazitako baldintzetan.

c) Gertakariak fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean salatu, hala dagokionean, zuzenketa-fasean azaldutakoaren arabera.

2.5.5.- Kasuaren jarraipena egitea eta funtsak berreskuratzea

Iruzur-kasu potentzialaren edo baieztatuaren jarraipena egingo da, eta aurreko apartatuen arabera egindako analisi, jakinarazpen eta salaketen ondorioz abian dauden ikerketen kontrolatik igaroko da.

Agintari eskudunen baten erantzuna jasoz gero, haiek emandako jarraibideak, neurriak edo gomendioak hartuko dira kontuan.

Gainera, hala dagokionean, bidegabe eskuratu diren edo balizko iruzur edo ustelkeria batekin lotuta dauden funtsak berreskuratzeko izapideak egingo dira, eta Udalak itzuli egin beharko ditu (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua). Europako Batzordeak, halaber, funtsak itzultzeko eskatu ahal izango du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Batasunaren finantza-interesei eragiten dien eta estatu kideak zuzendu ez duen iruzurraren, ustelkeriaren edo interes-gatazkaren kasuan.

Kontratuen eremuan, eta, subsidiarioki, enkarguetarako, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71.2.c), 110.c) eta 194. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

3. FINANTZAKETA BIKOITZA PREBENITZEKO, DETEKTATZEKO, ZUZENTZEKO ETA JAZARTZEKO NEURRI ESPEZIFIKOAK ETA ESTATUKO LAGUNTZEN ARAUBIDEAREKIKO BATERAGARRITASUNA

3.1.- SARRERA

Udalak eta plan hau aplikatu behar zaien gainerako udal-erakundeek prozedurak aplikatuko dituzte estatu-laguntzei buruzko araudia une oro erabat errespetatzen dela eta finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko. Horretarako, prozedura horiek bat etorriko dira MFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikuluan eta III.D eranskinean xedatutakoarekin, non estatu-laguntzen araubidearekiko bateragarritasuna eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioa jorratzen diren.

3.2.- PREBENTZIO-NEURRIAK

3.2.1 Iruzur-arriskuen ebaluazioa

Honako artikulua honetan ezartzen den bezala: MFP/1030/2021 Aginduaren 6.4 artikuluen arabera, iruzur-arriskuen ebaluazioa egitea nahitaezko jarduketa da

organo kudeatzaileentzat. Ebaluaziorako tresna, arriskuen matrizea izenekoa, II. B eranskin gisa txertatu zaio Plan honi.

Era berean, gutxienez urtean behin bete beharko dira estatu-laguntzei eta finantzaketa bikoitzari buruzko gutxieneko estandarrari buruzko autoebaluazio-galdetegiak (MFP/1030/2021 Aginduko II.B6 eranskina).

3.2.2 Finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko egiaztapen-zerrendak

Finantzaketa bikoitza izan dezaketen ekintzak identifikatu beharko dira, kudeaketa- eta kontrol-fase guztietan iruzur mota hori saihesteko beharrezkoak diren neurriak ezarri direla egiaztatzeko. Finantzaketa bikoitzaren arloan eskatutako dokumentazio guztiari osorik eragiten dion analisia eragotzi gabe, modu prebentiboan bete beharko da finantzaketa bikoitzari buruzko egiaztapen-zerrenda, EMFO/1030/2021 Aginduko III.D eranskinean jasotakoa, SEEPekin finantzatutako tresna juridiko bakoitzerako.

Era berean, eta estatu-laguntzen araubidea betetzen dela egiaztatzeko, MFP/1030/2021 Aginduaren III.D eranskinean jasotako erreferentziatzko egiaztapen-zerrenda bete beharko da, egoera hori saihesteko beharrezkoak diren neurriak ezarri direla egiaztatzeko, kudeaketa- eta kontrol-faseetan Estatuko eta Europar Batasuneko araudiarekin bateragarria den ebaluatu behar denean.

3.2.3 Finantzaketa bikoitzik ezaren adierazpenak

Kontratazio-espedienteen, dirulaguntzen, hitzarmenen edo bitarteko propioei egindako enkarguen bidez bideratutako neurriek nahitaez jaso beharko dute finantzaketa-iturrien identifikazioa, bai eta azken hartzaileen/onuradunen berariazko adierazpena ere, non adierazten baita ez dela finantzaketa bikoitzik gertatzen, eta ez dela antzeman estatu-laguntzen araubidearekiko bateraezintasun-arriskurik. Horretarako, HFP/1030/2021 aginduaren IV C eranskineko aitopene-eredua aurkeztu beharko dute sinatuta.

Era berean, minimis araubideko laguntzen kasuan, azken hartzaileak/onuradunak beste laguntza batzuen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea eskatuko da, baita informazioa eguneratzeko konpromisoa ere, zehaztutako zenbatekoak erreferentziako araudian ezarritako epeetan jaso ez direla adieraziz.

SEEPak finantzatutako tresna juridiko guztietan ezarri beharko da betebeharrak hau: azken hartzaileak/onuradunak kostu bera finantzatzen lagundu duen beste edozein funtsi buruzko informazioa ematea (ez soilik Europakoari buruzkoa), eta, gainera, finantzaketa bikoitzik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpen bat sinatzea.

3.3.- DETEKZIO-NEURRIAK

3.3.1 Bandera gorrien katalogoa

Bandera gorrien katalogoa eta, halakorik hautemanetz gero, jarraitu beharreko prozedura Plan honen III. eranskinean zehaztutakoa izango da. Eranskin horretan,

finantzaketa bikoitzaren eta estatu-laguntzen bateraezintasunaren arriskuei buruzkoak jasotzen dira. Bandera horiek dokumentatu egin beharko dira, eta, horretarako, egiaztapen-zerrenda bat bete beharko da, hain zuzen ere erabiltzen den tresna juridiko bakoitzean izapidetutako espedienteetan.

3.3.2 Kontsultak datu-baseetan eta informazio-sistemetan

Finantzaketa bikoitza eta estatu-laguntzen bateraezintasuna detektatzeko, kontsultak eta datu-gurutzaketak egingo dira datu-base edo informazio-sistema desberdinetan, betiere datu pertsonalen babesa errespetatzeak dakartzan mugen barruan.

Orientazio gisa, tresna egokitzat jotzen dira, hala nola Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (BDNS); Early Detection and Exclusion System (EDES); Financial Transparency System (FTS); Titulartasun Errealen Erregistroa; erakunde publikoen kontratazio-plataformak, gardentasun-atariak, etab.

3.3.3 Finantzaketa-iturriak kontrolatzea eta aztertzea

Azpiproiektuak edo jarduketa-lerroak gauzatzeko tresna juridiko bakoitzean finantzaketa-iturriak definituko dira. Era berean, SEEParen kudeaketa eta jarraipenerako informazio-sisteman (CoFFEE) identifikatuko dira, HFP/1031/2021 Aginduaren 4.2.f) eta g) artikulua xedatutakoa eragotzi gabe.

Halaber, Agindu horren 6. artikulua ezartzen du kontabilitate-betearazpenari buruzko informazioa aginduaren I. eranskinean ezarritako formatuaren arabera emateko aukera, eta, hala badagokio, beste finantzaketa-iturri batzuk aipatzeko betebeharra ezartzen du.

Kontuan hartu behar da azpiproiektu bakoitzerako osagaiaren fitxak, 10. atalean ("Finantzaketa"), Europako funtsen bateragarritasunaren aurreikuspena zein den adierazten duela. Horren inguruan, arau orokorra honako hau da: *"Suspertze eta Erresilientzia Planean zenbatetsitako inbertsioaren kostuaren zenbatekoak ez du Europar Batasuneko beste funts batzuetan dagoen edo aurreikusitako finantziatorik kontuan hartzen. Ildo honetan proposatutako mugarriak eta helburuak kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko Europar Batasuneko beste funts batzuekin egindako inbertsioak"*.

Aplikatu beharreko irizpide orokorra *"proiektu bat, Europako funts bat"* da, *"SEEParen eremuan finantzaketa bikoitza prebenitzeko orientabideak"* dokumentuaren baldintzetan ulertuta.

3.3.4 Informazio-kanalak

Iruzuraren aurkako Plan honen 2.3 apartatuan deskribatutako barneko eta kanpoko informazio- eta salaketa-kanalak, halaber, finantzaketa bikoitza eta estatu-laguntzen bateraezintasuna detektatzeko tresna osagarri gisa eratzen dira.

3.3.5 Finantzaketa bikoitzik ezaren eta estatuko laguntzen araubidearekiko bateraezintasunaren ziurtagiria.

SEMaren kargura finantzatutako espedientei dagozkien prebentzio- eta detekzio-neurriak aplikatu ondoren, eta finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzekiko bateraezintasunari buruzko irregularitasun-zantzurik ez dagoenez, eta kudeaketa-metodoa edozein dela ere (dirulaguntzak, kontratazioa, bitarteko propioak eta

hitzarmenak), organo kudeatzaileak finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria egingo du, SEMaren Erregelamenduaren 9. artikuluan jasotako finantzaketa bikoitzaren debekua betez. Horren arabera, erreformek eta inbertsio-proiektuek EBko beste programa eta tresna batzuen laguntza jaso ahal izango dute, baldin eta laguntza horrek kostu bera estaltzen ez badu. Ildo horretan, adieraziko du ezen, datu-base nazionaletan eta Europako beste funts batzuen datu-baseetan dagozkion egiaztapenak egin ondoren, bai eta bere eskumen-eremuko aplikazio ekonomiko eta finantzarioetan egiaztatzea ere, ez dela finantzaketa bikoitzik gertatzen (berariaz adieraziko du hori EBko funtsen konkurrentziarik ezaren ondorio dela; edo, konkurrentzia hori egonez gero, finantzaketa bikoitzik ez dagoela adierazteko aukera ematen duten inguruabarrak justifikatu beharko ditu), eta, hala badagokio, ez duela Estatuko laguntzen araubidearekiko bateraezintasun-arriskurik. Horrez gain, onuradunari jakinarazi beharko dio kostu berak finantzatzen lagundu duen beste edozein funtsi buruzko informazioa eman behar duela (ez soilik Europakoari buruzkoa).

3.4.- NEURRI ZUZENTZAILEAK

Finantzaketa bikoitzarekin eta estatu-laguntzekiko bateraezintasunarekin lotutako irregulartasunik antzeman ez gero zuzenketa-fasean, Iruzuraren aurkako Plan honen 2.4 apartatuan zehaztutako zuzenketa-neurriak aplikatuko dira.

3.5.- JAZARPEN NEURRIAK

Finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzekiko bateraezintasunari buruzko iruzurraren aurkako zikloaren azken elementu gisa, Iruzuraren aurkako Plan honen 2.5 atalean definitutako irregulartasunak jazartzeko behar diren aplikazio-elementuak bete beharko dira.

4. PUBLIZITATEA, ONDORIOAK ETA JARRAIPENA.

4.1. Publizitatea

Iruzuraren Aurkako Neurrien Plan Orokorra langile eta goi-kargudun guztien artean zabalduko da, bereziki dirulaguntzen edo kontratazioaren espedienteak izapidetzen dituzten unitateak osatzen dituzten artean.

Unitateetan langile gehiago sartzen direnean ere jakinarazi beharko da.

Langile sartu berrientzat, Iruzuraren aurkako Neurrien Plana nahitaezko edukietako bat izango da harrera-eskuliburuan.

Era berean, Donostiako Udalaren Gardentasun Atariaren atal espezifikoan eta Udalaren Interneteko atarian ere argitaratuko da.

4.2. Ondorioak

Plan horrek ondorioak izango ditu Udalak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzean eta hura indarrean dagoen bitartean garatzen dituen proiektu guztietan,

hasiera data edozein dela ere, bai eta Udalak etorkizunean kudeatzen dituen Europako gainerako funtsetan ere, baldin eta aplikagarria den araudiarekin bateragarria bada.

4..3. Jarraipena

Arduradun teknikoak proposatutako neurrien aplikazioaren eta betetze-mailaren etengabeko jarraipena egin beharko da.

Jarraipena honako datu hauetan oinarritu ahal izango da:

- Jasotako eta izapidetutako salaketen erregistroa.
- Egokitzen jotzen den beste edozein.

Gainera, plan hori ebaluatu egingo da proposatutako neurrien betetze-mailari eta egokitasunari dagokienez. Horri esker, gomendagarriak diren aldaketak egin ahal izango dira, eta Tokiko Gobernu Batzarrak onartuko beharko ditu horiek.

Bitarteko eta amaierako izaerarekin egingo da, eta, horretarako, jarraipen- eta emaitza-adierazleak definituko dira, espero ziren emaitzak lortu diren aztertu ahal izateko.

Era berean, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua 6.5 c) artikulua arabera, iruzur-arriskuaren ebaluazioa bi urtean behin berrikusiko da, eta, nolana ere, iruzur-kasuren bat detektatu denean edo prozeduretan edo langileen artean aldaketa esanguratsuak daudenean.

Bi jarraipen-jarduketa horiek arduradun teknikoak egingo ditu, honako alderdi hauek kontuan hartuta, besteak beste:

- Iruzur egiteko arrisku handiena duten neurriak identifikatzea, hala nola intentsitate handia, aurrekontu handia, eskatzaileak justifikatu beharreko baldintza asko, kontrol konplexuak, etab.
- Egon daitezkeen interes-gatazkak identifikatzea.
- Barne-auditorien aurretiazko lanen emaitzak.
- Europako Batzordearen edo, hala badagokio, Europako Kontuen Auzitegiaren auditoretzen emaitzak.
- Aurrez detektatutako iruzur-kasuak.